



Eresoinka 1937-1939

Nous sommes en 1937, après le bombardement de Gernika et après la perte de Bilbao, le Gouvernement basque déménage à Santander, d'où le lehendakari Jose Antonio Aguirre écrit une lettre au musicien basque Gabriel Olaizola pour le charger d'un projet culturel visant non seulement à conserver l'identité culturelle basque, mais également à prévenir la barbarie qui se profile.

« Il est possible que nous ne puissions pas sortir d'ici. Mais, pour autant, notre lutte n'est pas terminée, et je veux qu'elle concerne aussi le domaine artistique. Je vous charge de partir immédiatement pour la France et de former parmi nos réfugiés le chœur le meilleur possible, pour qu'il porte de par le monde, grâce à nos mélodies, le souvenir d'un peuple qui meurt pour la liberté, parce qu'à l'étranger ils ne savent toujours pas qu'on lutte pour elle. »

Olaizola réunit à Sare la meilleure sélection de dantzaris, de musiciens, de chanteurs et d'artistes plasticiens de l'époque parmi lesquels se distinguent un jeune Luis Mariano et Pepita Embil, pour préparer un spectacle qui les amènera à visiter la moitié de l'Europe.

L'EXPOSITION

Utilisant comme base le travail de recherche de Philippe Regnier et les photos prises par le membre d'Eresoinka, Jesús Elozegui, cette exposition nous montre comment se sont passées les deux années de tournée en exil, en voyageant dans toute l'Europe avec un spectacle préparé en un peu plus de deux

mois et qui a rencontré beaucoup de succès parmi le public.

L'exposition cherche à retracer la vie en exil de l'Ambassade culturelle Eresoinka à travers la documentation graphique, des supports audiovisuels et des articles d'origine ; la vie en exil en temps de guerre.

ERESOINKAREN ITZALAK

La mission de la compagnie Dantzaz consistera à revisiter Eresoinka un siècle plus tard, dans le but de redéfinir la guerre et l'attaque qui se présentent à nous, et de l'associer à l'identité : être Basque dans l'universalité.

Nous vivons dans une époque où la culture et l'art peuvent subir des attaques, remettant en doute leur apport à la société. Eresoinka avait prévenu l'Europe et le monde de ce qui se tramait par le biais de l'art et de la culture ; dans le même but, Eresoinkaren Itzalak réunit le chant choral, la danse et le mapping dans une création unique.

Le local et l'international, la distance, l'identité, l'appartenance, le voyage, l'assimilation, notre bien et le bien d'autrui...

Dantzaz, une Eresoinka du XXIème siècle, unit ses forces à un groupe de chant choral contemporain (KEA) et à un artiste visuel (Inesfera), pour créer Eresoinkaren Itzalak : l'ambassade culturelle du XXIème siècle.

Lieu: Théâtre Quintaou Antzokia Anglet

Date: 22 octobre 2016

Heure: 20:30



dantzaz

ERESOINKAREN
ITZALAK

EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA
CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA
CAPITALE EUROPÉENNE DE LA CULTURE
EUROPEAN CAPITAL OF CULTURE



Corale: Eresoinka 1937-1939 ERAKUSKETA

SARA - LUBERRI ARETOA
UZTAILAK 22 - ABUZTUAK 22



AHOTSAK
VOIX

Eragileak: INESFERA SARA ONDARRA Agudo Sud Pays Basque Nepa Logoak Eresbil dantzaz

Babesleak: Obra Social "la Caixa" Eskerrak: Phillipe Regnier



Eresoinka 1937-1939

Gernika bonbardatu eta Bilbo galdu ostean, 1937. urtean, Eusko Jaurilaritzak Santander aldera jo zuen. Bertan, Jose Antonio Agirre lehendakariak gutun bat idatzi zion Gabriel Olaizola euskal musikariari, kultura-proiektu bat presta zezan euskal kultura-nortasuna gordetzeko eta hurbiltzen ari zen basakeriaren berri emateko.

«Beharbada ezin izango gara hemendik atera, baina ez dugu horregatik gure borrokan amore emango. Eta alor artistikora ere eraman nahi dut borroka. Hona, bada, nire mandatuak: zoaz berehala Frantzia aldera, eta osa ezazu gure errefuxiatuen artean ahalik eta koru onena, gure melodien bitartez munduan barna zabal dezagun askatasunaren alde hiltzen ari den herri baten gogoramena, atzerrian oraindik ez baitakite borrokan gabiltzala askatasunaren alde».

Olaizolak garai hartako dantzari, musikari, abeslari eta artista plastiko onenak bildu zituen Saran; besteak beste, artean gazte zen Luis Mariano eta Pepita Embil. Ikuskizun bat prestatu zuen, Europa osoan barrena zabaltzeko.

ERAKUSKETA

Philippe Regnierren ikerketa lanean oinarrituta eta Eresoinkako kide Jesús Eloseguiren argazkiak erabiliz, erakusketa honek erakutsiko digu erbesteratuek nola bizi izan zuten Europa osoan egin zuten bi urteko bira arrakastatsu hura, bi hilabete eskasean prestatu zuten ikuskizun harekin.

Dokumentazio grafikoaren, ikus-entzunezkoen eta garai hartako artikuluen bidez, Eresoinkak enbaxada kulturalaren erbesteko bizimodua erakutsiko du; gerra garaietako erbesteko bizimodua, alegia.

ERESOINKAREN ITZALAK

Dantzaz konpainiaren helburua Eresoinka mende bat geroago berraztertzea izango da, mehatxuka ditugun gerra eta erasoak zein den birdefinitzeko eta «unibertsalean euskalduna izatea» identitatearekin batzeko erronkarekin.

Gaur egun, kultura eta artea ere ez dira erasoez libratzen, eta zalantzan jartzen da gizarteari egiten dioten ekarpena. Mundura iristear zegoen hartaz ohartarazi zituen Eresoinkak bai Europa, bai mundua; artearen eta kulturaren bidez ohartarazi ere. Eta egiteko modu hari jarraikiz, Eresoinkaren Itzalak ikuskizunak kantu korala, dantza eta mapaketa batuko ditu parerik gabeko lan batean.

Tokikoa eta nazioartekoa, distantzia, nortasuna, nonbaitekoa izatearen sentimendua, bidaia, onarpena, norberarena eta besterena...

Dantzaz konpainiak, XXI. mendeko Eresoinkak, Kea abesbatza garaikidearekin eta Inesfera artista bisualarekin bat egin du Eresoinkaren Itzalak sortzeko, XXI. mendeko enbaxada kulturala.

Lekua: Théâtre Quintaou Antzokia Anglet/Angelu

Data: 2016ko urriaren 22an

Ordua: 20:30ean



dantzaz


ERESOINKAREN
ITZALAK

EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA
CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA
CAPITALE EUROPÉENNE DE LA CULTURE
EUROPEAN CAPITAL OF CULTURE



Corale: Eresoinka 1937-1939 EXPOSITION

SARA - LUBERRI ARETOA
22 JUILLET - 22 AOÛT



AHOTSAK
VOIX

Eragileak: IN INESFERA SARA LO ONDARCA Agde-Sud Pays Basque Nago Lapostol Ingueno Eresbil dantzaz

Babesleak: Obra Social "la Caixa" Eskerrak: Philippe Regnier